

Azken urtean 100.000 lanpostu galdu dira Espainiako industri sektorean

UGTk Gobernu zentrala kritikatu du industriaren etorkizun beltzagatik

UGT sindikatuak kezka agertu zuen atzo Espainiako industri sektorearen egoera eta etorkizun ilunagatik. Azken urtebetean sektore honetan 100.000 lanpostu galdu direla salatu du eta Gobernuaren erantzukizuna azpimarratzen du sindikatu sozialistak.

MADRIL

Espainiar Administrazioaren ekonomi eta industria politikak duen «sektore ezaugarri falta kezkatzekoa da» adierazi zuen atzo UGTk kale-ratutako prentsa agiri baten bidez. Sindikatu honek ziurtatu zuenez, industriaren etorkizuna «nahiko iluna da Espainian, Europako Komunitatean sartzeko bezperan».


UGTk kezagarritzat jo zuen industriaren produkzioaren pisua Barne Produktu Gordinean, 1986. urteko % 29,2tik 1990eko 25,6ra jaitsi da eta. Konparazio hau «are larriagoa da EKko lurraldeen datuekin alderatuz gero, lurralde hauetan industriaren batezbestekoa BPGn % 44,1 da eta».

Sindikatu sozialistak gaizki eritzi dio egoera honi eta, beronen ondorioz, kanpo merkataritzaren etengabeko jaitsiera, konpetitibitatearen okertzea eta industri enplegua murrizketa gertatzen ari dira. Azken honetaz, % 3,2 gutxitu dela industri enplegua dio UGTk, guztira 100.000 bat lanpostu galdu direlarik.

ZERBITZUAK ETA ERAIKUNTZA ERE KEZKATZEKOAK

Zentral honen ustez, «espainiar produkzio eskaintzaren ohizko defizitak areagotzen ari dira». Eskaintza hau hirugarren sektore edo zerbitzu arloan oinarritzen da gero eta gehiago eta, dituen akatsak direla medio, «sektore honek ere geldialdia pairatu lezake».

Eraikuntza arloa aipatuz, beronen bultzada gehien bat lan publikoek eragin dutela dio sindikatu honek,



Industriaren pisua BPGn % 29,2tik 25,6ra jaitsi da Espainian.

✓ Administrazioaren ekonomi eta industria politikak duen «sektore ezaugarri faltaga kezkatzekoa da» UGTrentzat


«bete beharreko etxebizitza eskari handia dagoelako». Sektore honen etorkizuna ere ez dela oso pozgarria dio UGTk, Gobernuak iragarritako aurrekontu murrizketak direla eta.

Gauzak horrela, sindikatu sozialistak gobernuaren politikak jarraitu beharko lituzkeen lerro nagusiak proposatu ditu. Politika honek «sek-

torekako akordioak eta industria sarearen modernizazioan oinarritu behar luke». Honekin batera, UGTk sektore publikoaren funtzio estrategikoa sendotzeko negoziazioak hastea eta negoziazio kolektiboa bultzatzea proposatzen du; «guzti hau ekonomi politikaren sustraitikako aldaketan oinarrituta».

zentruen egoitza eraikitzeko. Guztira, 3.500 milioi pezetatik gorako zenbatekoa duten baliabide hauen helburua Bizkaiko Teknologia hobetzea da, ekonomiarentzat garrantzi gehien duten sektoreetan, hala nola Robotika, Telekomunikazioak, Ontziraketa, Bioteknologia edo Materiale Berriak.

1990. urtean 17 proiektu burutu ziren, 560 milioi pezetako aurrekontuarekin. Beste bi proiektu ere izan ziren 'Star' programa komunitarioak eta Diputazioak erdibana finantzatutakoak. Aipaturiko bost zentruetatik aurrekontu handiena Biotek-ek jaso zuen, 130 milioi pezetakoa, alegia. Teletek-ek 129 milioi jaso zituen, Robotiker eta Gaiker-ek 100na milioi eta, Enbiker-ek 40 milioi pezetak jaso zituen.




Zamudioko teknologi parkea. Diputazioak 1.200 milioi inbertituko ditu.

BILBOKO BURTSA



BILBOKO BURTSAREN ASTEKO BILAKAERA



Likideziarik eza nabarmendu zen Bilboko parketean iragan astean

IBON ALONSO / BILBO

Aste honetan burtsak nazioarteko mugimenduen altzora bukatu ditu azken ekitaldiko eragiketak. Asteleheneko ekitaldian Bilboko Bursaren indizeak 0,42 puntu galdu zituen eta 370,39 mailan finkatu zen. Lehen ekitaldi honen ezaugarri nagusia kotizazioen errepikapena izan bazen ere, hiru balioek bakarrik egin zuten gora. Uztailako Kontsumorako Prezioen Indizeari (KPI) buruzko aurrikuspenak baikorak agertu ziren, parketean datu horrek merkaturak bultzatuko zuela itxaropena agertuz. Aurreko ostiralean bezala, inbertsoreen erakarmena Bodegas Bilbainas balioetarantz bideratu zen 50 pezeta irabaziz eta kotizazioa 925 mailan kokatuz.

Burtsak era positiboan baloratu zuen uztailako KPIren astearteko iragarpena (prezioen % 1,2 igoera Estatuan eta % 0,9 Euskal Autonomi Elkartean, alegia). Honen ondorioz, indize orokorra 373,54an kokatu zen asteartean eta 3,15 puntu irabazi zituen. Alor guztietan irabaziak gauzatu ziren aseguruetan izan ezik (-0,11). Bankuak izan ziren gorakada indartsuena lortu zuen alorra. Be-

rriro ere, Bodegas Bilbainas-ek, nahiz eta bi puntu galdu inbertsoreen begirada bereganatu zuten: parke-tean negoziatutako 60 milioitatik, 45 milioi Bodegas Bilbainas akzioei zegozkien. Banco de España % 12,75an ezarri bazituen gordailu agiriak, kotizazioa errepikatuz, inbertsoreek ez zioten kasu handirik eman gertaera honi. Kontratazio bolumena maila txikietan mantendu zen asteartean. Merkatu jarrairi dagokionez, esan 255,5 milioi pezetatan zenbatu zirela Bilboko Bursatik egindako erosketak; berriz, salmentak, 296,5 milioitan.

KONTRATAZIO BOLUMEN TXIKIA

Asteazkenean Bilboko Bursaren indize orokorra 0,69 puntu galdu zituen, 372,85 mailan kokatuz. Oraingoan inbertsoreen erakarpena eraikuntza alorreko Lemona balioetarantz abiatu zen. Lemonak 70 puntu galdu zituen. Nazioartean gertatutako igoerek ez zuten eraginik izan hemengo parke-tean. Agian, osteguneko jaia zela eta likidezia gutxitu zen merkatuan. Altxorak, asteazkenean enkatean lehen urte beteko errentagarritasuna % 12,348an ezarri zuen aurreko enakante emaitza berdina errepikatuz. Dena den, emaitza horrek ez du ia ezer bultzatu inbertsoreen nahia errenta aldakorrek tituluarantz. Eraikuntza alorra beherapen gogorrena pairatu zuen, hots, -19,24 puntu galdut. Ia balio guztiez kotizazioa errepikatu zuten.

Ostegunean Begoñako Andra Mariaren ospakizuna zela eta jaieguna izan zen Bilboko Bursan. Ostiralean, aste honetako laugarren ekitaldian, indize orokorra 372,32an finkatu zen, 0,53 puntu galdut. New York-eko burtsan izandako geldialdia, Alemanian onartutako interes tasen igoera eta Banco de España iragarritako ekonomiaren 'izoztea' izan ziren, besteak beste, burtsak pairatutako jeitsiera eta kontratazio bolumen txikiaren zio nagusienak. Aipatu, Bodegas Bilbainas-en balioen gain dagoen OPAren luzapena beste 20 egunetara (era berean OPA-aurreko eraso bat aurrikusten da).

Bizkaiko Diputazioak 47 ikerketa finantzatu zituen 1.300 milioirekin

BILBO

Bizkaiko Diputazioko Sustapen eta Garapen Sailak 1.300 milioi pezeta (65 milioi libera) inbertitu zituen 1988tik 1990era bitartean Robotiker, Teletek, Gaiker, Biotek eta Enbiker teknologi taldeek burutu dituzten ikerkuntza aplikatu proiektuetan.

Azken urteetan gastatu 1.300 milioi aurtengo ekitaldirako diputazioaren menpeko zentru horiek jasoko dituzten 1.000 milioiak gehitu behar zaizkie. Kopuru honetatik 600 milioi baino gehiago Sustapen eta Garapen Sailak berak ezartzen ditu, proiektu berriak burutu daitezkeen.

Bestalde, 1.200 milioi inguru gastatuko dira Zamudioko Parke Teknologikoaren terrenoetan teknologi